

## **BEZEROEKIN HARREMANAK**

Bezeroekin harremanak izateko, lehenik eta behin, erakundeei eta herri bakoitzeko Udal Batzorde, mankomunitate, GKE... maila bidaliko genien gure proiektuaren berri ematen. Gero, interesatuta badaude, proiektua hobeto azaltzeko eta dauden zalantzak argitzeko bilera bat prestatuko genuen, eguna eta ordua beraiekin adostuta.

Bilera horretan, herri bakoitzaren baliabideak ezagutuko genuen, ondoren gure harrera planera moldatzeko. Hori gertatu eta gero, harremana gehien bat telefonoz izango genuke. Gai berriren bati buruz hitz egin beharko bagenu, berriro ere bildu egingo ginen eta egoera aztertuz, konponbide desberdinak aurkituko genuke.

Beste alde batetik, bilera ireki batera deituko genuke herritar talde desberdinak, baita herritarrak bakarrik ere. Horrela, beraiek zer eskaini ahal diguten ikusiko genuen eta horrela daukagun informazio guztia aztertuz, antolatuz eta egon garen talde guztiak koordinatuz, harrera plana guztiz antolatuta egongo zen iristen diren egunerako.